

#BoluntaldiaCOVID19an

Abenduak 5a Boluntariotzaren Nazioarteko Eguna baliatuz boluntario gazteen lana azpimarratu nahi dugu.

Etorkizunari begira erantzuna behar duten hainbat erronka bildu ditugu manifestuan.



COVID-19ak gizartean jada dauden arrakalak izugarri areagotu ditu eta eragindako krisi multisektorialaren ondorioz hainbat pertsonen egoera zaurgarriak –edo are zaurgarriagoak– bizi dituzte. Honen aurrean, Boluntariotzaren Nazioarteko Eguna aprobetxatu nahi dugu gazte

boluntarioek azken hilabeteetan egindako lana azpimarratzeko, pandemia egoeran gizarteko beharrei erantzuteko erakutsitako prestutasuna nabarmentzeko eta identifikatutako hainbat eginbehar plazaratzeko. Gazte boluntario bezala, badaukagulako zer esan eta zer proposatu.



1. Boluntario gazte bezala identifikatzen ditugun beharrak



Boluntario gazteen lanarekiko ematen den ikusgarritasuna azpimarratzea beharrezkoa da eta aurrera begira indartu beharreko puntua. Honi jarraiki, hezkuntza ez formala bera ere balioetsi behar dugu gizarte bezala. Horretarako boluntariotza zer den eta honen mugak non kokatzen diren identifikatzea eta izendatzea ezinbestekotzat jotzen da. Eta, etorkizunari begira, boluntariotzaren aurrera pausurako erregularizazioari behar bezala eustea aldarrikatzen da.

Gazte bat boluntario izaten hasterakoan formakuntza minimo bat jasotzearen aldeko apustua egiten da eta eskaintza hori une oro bermatzearena. Era berean, boluntario gazte gehiagoren presentzia aldarrikatzen da, honen funtzioetarako elkarte antolatu gehiagoren ikuspegia txertatzearekin batera. Honen harira, gazte boluntariotza aldarrikatzeaz gain, pertsona gazte eta boluntario direnen ikusgarritasuna eta balioestea ematearen beharra ere argi ikusi da.

2. Gazteon boluntariotzan aurkitu ditzakegun zailtasunak




Gehien nabarmendutako ideia errekurtsuena izan da, adibidez aniztasun funtzionala duten pertsonak boluntariotzan parte hartzeko duten zailtasuna eta errekurtsu falta (pertsonalak zein materialak). Inklusio falta bat existitzeak, pertsonen parte hartzeko gogoan eta motibazioan eragina izan dezake.

Honen harira informazio falta nabaria eta horrek etengabe zailtasunak sortzeko aukerak handi ditzakeela salatzen da. Esaterako aniztasun funtzionala duen pertsona batentzat boluntariotzara sarbidea edo honetan hasteko aukera izatea zein zaila den identifikatu da.

Denboraren, bizi erritmoaren eta hau boluntariotzarekin bateragarri egitea erdigunean jarri nahi ditugu, konpromiso beharra eta boluntariotzaren kultura falta zailtasun bezala identifikatu direlarik pertsonaren bizi antolaketari dagokionean, gai eta ekintzen lehenestea dela-eta maiz ekintzak burutzeko denbora falta baita. Zailtasun bezala gainera, boluntariotzan parte hartzera bidean lana eta ekintza boluntarioaren arteko desberdintasuna landu nahi izan da, hau da, boluntariotzaren asmotik bideratuta dauden espazioetan lan intrusismoa eta esplotazioa bezalako faktoreek parte hartzerako orduan sortzen dituzten zailtasunak arriskua izan daitezke boluntariotza beraren garapenean.

Kontzientzia soziala eta pertsona gazteengana heltzeko mugak ere zailtasun bezala identifikatu izan dira guzti honekin batera.




3. Gazteok arlo honetan aurrera begira egiten ditugun proposamenak



Alde batetik, argi ikusten da boluntariotzaren inguruko legegintza oso ezezaguna dela eta, beraz, hau ezagutzeko kanal eta medio berriak martxan jarri behar direla. Gainera, erregularizazioaren eta legegintza beharraren ideia zenbaitetan aldarrikatu izan da, hau da, ofizialki bideratutako ziurtagirien ideia proposamen gisa sarritan atera den gai edo proposamen konkretu bat izan da. Bestetik, boluntariotzan dauden pertsonentzat beharrezkoak diren baldintzak eta hauen hobekuntza ematea proposatu da, horrek pertsona boluntario guztien egoera hobetuko lukeelarik. Hala, boluntariotzan aritu nahi duten pertsonak parte hartzera animatu ere, hau erakargarriagoa bihurtuz.

Beste alde batetik, boluntariotza eta honen ikusgarritasuna hezkuntzan hastea proposatzen da: ikastetxe, unibertsitate eta gainerako medioen bitartez egiten den lan honi isla, balioeste eta jarraipen bat emate aldera, etengabeko eta txikitatik hasten den transmisio lan bat eginaz.

Azkenik, aniztasun funtzionala duten pertsonetikiko irisgarritasuna hobetzea eta, zentzu horretan, aukera berriak martxan jartzea lehentasun gisa ulertzen da gainera.



4. Boluntariotzarekin identifikatzen eta lortzen ditugun etorkizuneko erronkak



Hauek izan dira, nagusiki, aurrera begira erronka gisa identifikatu izan diren puntu garrantzitsu eta lehenetsiak:

- 1 Gizarte indibidualistarekin bukatzea.
- 2 Jende gehiagok boluntariotza egin dezan lortzea eta horretarako elkarteen aukerak gehiago ezagutaraztea.
- 3 Boluntariotzaren ikusgarritasun handiagoa ematea.
- 4 Boluntariotza eta lanaren gainean berdintasuna nabaria izatea eta desberdinduz eramatea praktikara, hau da, pertsona gazteon aprobetxamendurako baliabide edo bitarteko gisa ez ulertzea eta erabiltzea boluntariotza bera.
- 5 Laneratzeari begira boluntariotzek duten balioa areagotzea.
- 6 Egunerokoaren eta denboraren kudeaketan, lana tartean izan daitekeela kontuan izanik adibidez, konpatibilizazio hori eman daitekeela bermatzea, hau da, bizi erritmoak boluntariotza ahalbidetzea edo horretan laguntzea.
- 7 Gazteenekin lan bat egitea, transmisiozkoa, boluntariotza zer den eta gizarteari zer ekartzen edo ematen dion belaunaldi berrietara helarazteko asmoz.

